# Bertso jarrietatik ahozkora
## (Urkabe-bertsoak euskaraz: estudiante gaztearenak eta beste)

*Xabier Kaltzakorta*

### SARRERA

Umetan, geure kalearte estutik ihes egin eta Xemeinera joan ohi ginen. Markinako kaleartetik Xemeinera dagoen tartea hamar bat minutuan egiten bagenuen ere oinez, gure umetako akorduan bide luzea zen, luzeegia, beste mundu batera eramaten gintuelako. Xemeineraz gero, sarreran, zelai edo launearen ezkerraldean, bada arte-arbola zahar bat, besanga bihurri eta handiak dituena, eta enbor zabal eta ia erdibitua. Enbor hautsi horretatik gora igon eta besanga zabaletan etzan eta zeruari begira egon ohi ginen. Eguzki-izpiek itsutzen bagintuzten, begiak zabaldu ezinik aurkitzen baginen argiaren argiaz, arbolaren ostajeak eguzkia non ezkutatako ahalegintzen ginen. Orduan, arte-arbolako adaburutik ikusi ohi genuen zerua mila zatitan puskatzen zen. Artearen horri txiki ugariek zeruaren berina zabala mila zati eta brintzetan hausten zuten. Arte-arbola horrek, gainera, udaberriero, bere fruitutxoak eman ohi zituen. Fruitu horiei "txantxilikotak" deitzen genien, gure herriko euskaran. Txantxilikotak,

gerora ikasi dudanez, oso leku gutxitan esaten da, gainerako bizkaitarrek kukusagar eta beste deitzen omen die. Txantxilikota hauek lurretik batu eta taberna batera eramaten genituen. Kontzejupeko tabernara, Mayonera. Taberna hartako tabernariak guk lurrean bildutako fruitutxo horiek, txantxilikota direlako horiek, karta-jokalarientzako "hamarreko" bihurtzen zituen. Lurgaineko txankilikotak mahai gainean "hamarreko" bihurtzea ez zen guretzat mirari handia. Leku batetik bestera aldatzea baino ez zen. Guretzako benetako miraria beste bat zen. Txantxilikota horiek biltzearren azeitunak ematen zizkigun tabernariak. Dozena bat edo dozena eta erdi azeituna bildutako txantxilikoten truke. Hori zen gure umetako poza! Hori zen gure umetako eztegua! Baina tabernariak ez zigun txantxilikota hainbat azeituna ematen. Erraz batuko genituen, nahi izatera, ehundaka txankilikota. Zaku bete ere bai, hala nahi izatera. Baina bi dozenatik gora ez zituen onartzen, gehiegi zirelako. Azeitunak ere eskutada bat baino gehiago ez, eta eskutada horretako altxortxoa plater txiki batean sartzen zen. Plater txiki hartako garauak ez ziren ume kozkor batzuentzat mokadu ugaria baina bai estimatua!

Arte-arbola urtetsu horrek bazuen guretzat misterio bat. Herrian esan ohi zen adar sendoenetan urkatzen zituztela hiltzera kondenatuak zeudenak. Nire amak esaten zidan arbola hura zela "sasoi bateko urkemendixe". Arbola hartan urkatzen zituztela lapur eta hitzaileak, eta urkatu baino lehen Markinako kaleetatik hiru buelta egin behar izaten zituztela. Kondenatuak hiru buelta ematen zituzten Markinako kaleetatik jentearen begirada eta esanen erasopean. Berari, neskatila koxkondua zela, ixtorio horiek larogeitamar urteko andre zahar batek kontatzen omen zizkion. Andre zahar horrek berak bere begiz nonbait ikusitakoak. Urkatuen artea zen, beraz, gure jolastokia. Betidanik urkatuen kontu eta historiak indar handia izan dute umeen irudimenean. Umetan entzundako ixtorioek eragindako zirrara beti eramaten dugu aldean. Arrazoi edo zergatikako hori izango ditu oinarri orain idazten dudan artikuluak.

## URKABE-BERTSOAK EUSKARAZ

Denok dakigu, gure herrian zein erbestean, urkatzera doazen kriminalaren gaineko bertso-sailak saldu ohi zirela bertso-paperetan. Juan Maria Zubizarretarenak dira, esaterako, 1900eko "Bertso berriak Azpeitia´ko urkamendiaren gañian jarriak" bertso bikainak (Ikus *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria (1855-1905),* 133-141 or., Auspoa nº 82, 1969). Pierre Topet-Etchahunek ere idatzi zituen horrelakoak. Hor dugu horren erakusgarri eder "Complainte Heguilus" ("L'oeuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun" *Euskera* 1969-1970, 624-638or.). Tankera horretako bertso-sailen gainean eskeini dugu artikulu bat edo beste I*datz* & *Mintz* aldizkarian (Ikus bedi, nahi izatera, 29. aleko16-23 orr., "Alabaren heriotza"). Jean Etchepare donepaleutarraren bertso-sail zenbait ere argitara genuen *Karmel* aldizkarian (Ikus "Jean Etchepareren cantu dolorosac" *Karmel* 2000-2 Apirila-Ekaina, 230. zenbakia, 35-54 or.). Bertso-sail hauek gertaera odolgirokoak kontatu ohi dituzte. Bertso narratiboak izan ohi dira eta erdaraz "romances vulgares" edo "romances de ciego" "(romances) de cordel" izendatu ohi zirenak euskaraz "balada arruntak" deitu edo izendatu zuten lehenengoz *Euskal baladak I* eta *II* liburuen egileak[1]. Izendapen bat baino gehiago izan dute tankera honetako bertso-sailek. Azkue handiak "Endechas y Elegías" sailean sailkatu zituen bere kantutegi nagusian. Patri Urkizuk bere *Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak I anonimoak* lanean "Hiltze, presondegi eta beste" izendatzen duen sailean ematen ditu[2].

---

[1] Izendapen honen iruzkin eta abarrez ikus bedi Jesús Antonio Cid-en "Romancero hispánico y balada vasca" in *Antonio Zavalaren ohoretan Herri literaturaz gogoeta*, Universidad de Deusto, 2000, 71 or.

[2] Sail honetan guk baladatzat ditugun kontapoesia ez ezik, "balada arruntak" ere sartzen ditu P. Urkizuk. Ikusi besterik ez dago zeintzuk sartzen dituen: Andre Emili, Hauzeko anderia, Haltzak ez du bihotzik, Aphez beltxaren kantuak, Goizian goizik jeiki ninduzun, Atharratze jauregian, Anderea gorarik…, Judu erratuaren kantiak,

Bertso odolgiro hauek, bi era edo tankeratakoak izan ohi dira, gehienetan. Narratzaile batek hirugarren pertsonan kondatzen ditu hiltzaileak egin dituen heriotzak eta lapurretak edo dena delako gaiztakeriak, edo hiltzaileak berak kondatzen ditu erreskadan bere heriotza edo egitada odoltsuak. Bigarren sailekoek, jakina, indar handiagoa dute lehen pertsonak hurbiltasun eta dramatismo handia eransten dielako bertsoei. Begi-bistako kontua da lehen pertsonan kontatu arren, ez dela bertsogilea, askotan, hiltzailea. Goraxeago aipatu dugun Muazko heriotzarena ere lehen pertsonakoa izan arren, bertsogilea ez da Jose Tejeria hiltzailea, Juan Maria Zubizarreta bertsolaria baizik. Orixe olerkari handiak, beste askok bezalaxe, uste zuen hiltzaileak berak zirela askotan bertsolariak, lehen pertsonan kontatuak zeudelako. "Los reos poetas" (*Euzkadi*, año XV nº 4.551, 1927 urtea) artikulua, esaterako, honelaxe hasten da:

> "En nuestra siempre desdeñada y no bien conocida literatura popular se cultivó hasta nuestros días un género de poesía, cuyas muestras se hechan de menos en nuestros cancioneros. Hemos alcanzado la tradición, que en nosotros se interrumpe y desaparece definitivamente, de que los más insignes criminales, los destinados al cadalso, cantaran el arrepentimiento de sus crímenes en verso, construído por ellos mismos".

Eta esaten duenaren erakusgarri hurrengo esaldi hau dakar: "El último que recordamos es el homicida de Aya , ejecutado en Azpeitia, cuyos versos recorrieron todos los rincones de nuestro País, como pregoneros de escarmiento en cabeza ajena".

Era honetako bertsoak, Orixe handiak "urkabe-bertsu" izendatu zituen bere *Euskaldunak* poeman, eta guk ere bide berari jarraiki, dei-

---

Brodatzen ari nintzen, Elorri xuriaren azpian, Errege jan, Hiru soldadoen kantua, Tronpatzia, Behin batez, Kunte Monrial, Uretako semea, Zalduko jauna, Oreina bilakatu neska, Heben sgirade, Herraturik nabila, Hegaburu Eskiula, Mulineko primia, Santa Grazi herrian, Baldumeko oihana.

tura hori erabiliko dugu lantto honetarako. Baina, aurrera baino lehen, jarri dezagun *Euskaldunak* poemako pasartea:

Zenbait urkabe-bertsu, Lanz-ko lapurrena,
ta amairu eriotza ein zitunarena,
ta abar, kantatu ziran orien urrena.
Ikus emen Imoz´ko apezgaiarena.

Urka-behar bakoitzak bere egin-okerra
berez naiz bestez, ba zun koplatzeko oitura.
Gure gaiztagin onek ba zizun eskola,
ta Jainkoak lagunduz mintzatu zan ola[3].

Orixek erdarazko artikuluan esaten duena berritzen du bere bertso bietan, baina aldaera ttipi bat duela. Erdarazkoan bertsoak hiltzaileak berak urkatu baino lehen egin eta kantatzen zituela dio. Euskarazkoan, "berez naiz bestez, ba zun koplatzeko oitura" dioenean, beste bertsolariren batek egin arren, kondenatuak edo urkabeharrak berak kantatzen zuela dio. Zehaztasun berak eman zituen erdaraz ere Orixe handiak, eta zehaztasun hauek, gainera, ez ziren berak asmatuak arbasoei entzunak baizik. Honelaxe zehazten du aipatutako artikuluan:

> "Era costumbre, como se lo oímos decir a nuestros abuelos, que todo reo hiciera el relato de su triste hazaña en verso, a no ser que careciera de la facultad de rimar, en cuyo caso encargaba a otro que los compusiera en primera persona. El plan de la poesía es el siguiente: Exposición del hecho criminal, envuelto en moralejas, haciendo recalcar el escarmiento que hacía en su persona la justicia humana; demanda de perdón a los circunstantes, a los de su familia, a Dios; profesión de fe católica, con la esperanza de obtener el perdón y la vida perdurable. A nada que se supiese rimar, las cir-

[3] ORMAECHEA, Nicolas "Orixe": *Euskaldunak poema eta olerki guziak / Poema los vascos y poesías* completas, Editorial Auñamendi, 1972, 120 or.

> cunstancias favorecían la inspiración. Dada la facilidad de nuestra lengua y la práctica, raro sería en otros tiempos el que no versificase por sí mismo".

Orixek *Euskaldunak* poeman "Hamairu heriotzena" eta "Lanzko lapurrena" aipatzen ditu. Eransten duen bertso-saila, ordea, "Imoz´ko apezgaia" da, nahiz gertaera nonbait egiazkoa izan, Orixek berak ondua. Orixek ez zuen arrazoirik falta zenbait kantu edo bertso-sail urkabeharrak berak eginak direlako. Adibiderik famatuenetako bat aipatu beharko banu, Bordaxuriren kanta da. Bordaxurik Pabeko presondegian burdinez kargaturik zegoela ondu zuen Euskal Herrian famatuak diren "Galerianoaren kantak". Nahiz kantaren azkenaldera Hazparnen kantatzeko kantak egin, tradizioz, guk dakigula behintzat, Iparralde osoan kantatu dira[4]. Guk lantxo honetarako aldatuko dugun "Hamalau heriotzena" bertso-sailaz, esaterako, Basarri bertsolariak honelaxe zion: "Guk eztegu duda aundirik iltzalleak etzituela jarriko bertsoak, aren aitorketak ondo ezagutzen zituen bertsolari batek baizik"[5].

Lanzko lapurren gaineko bertso-sailak hurrengo baterako utziko baditugu ere, gure lantxo honentan Orixek aipatzen duen "Hamairu heriotzarena" eta "Hamalau heriotzena" eta beste zenbait bertso-sail iruzkinduko ditugu.

## LAPUR FAMATUAREN BERTSOAK

Urkabe-bertsoen ezaugarrietako bat da garai bateko bertso-paperetan saltzen zirela, gorago esan dugunez. Bertso-paperetan genero

[4] Tradizioz diot, eta badute dagoeneko ia bi mende(ta)ko tradizioa. Hegoaldean orain ere kantatzen dira, gure kantaririk famatuenek "ahozkoturik".

[5] Geroago aipatzen dugun "Neure bordatxotik" *Aranzazu*, Mayo 1962, 148-149 orr.

# BERSO BERRIAC

## Lapur Famatuarenac

1

Oraiu ezaiu berri bat
nai naqua ni jarri
munduaco ordoquen
ezagutzeagatti
trantze, ezto ubeian
gaiztu nago larri,
nere pensamenac
ezangabe gurbi.

2

Ya nere ordoquac
editu izanbaco
nere desfrutabera
se lan eraiñaac
amairu urteetan
urtebete barruan,
nescatiac bat eotiro
nola aguin ditudac.

3

Ogueí ta bost urte
dituzat eraiñdia,
aguin dutto iaun neri
bati ezacutar;
aiñdiqua alparrio
guztiac ni,
ostiri aquaiñac
ezaiu pasa gueiri.

4

Ay ni nere eusete
iaungoiri,
jatiñac bere eccetia
ezcañqueq iraiu;
nonacha bat
iaudan guztia,
amairu personari
quentzeac bizia.

5

Neri itsac ezaiu da
bestiarequin ezcutu
oraqueac ezcutendi
biotzaiu denac
oiaz zer iriquiera
prestbea iaun baiu
bera gaiz tiur dagu
ezcin bioc gaiztu.

6

Vanguaac errequia
gau triste batian
*pufial eta* trabac
artuzic aldian
oude iduzic neoguac
aiñdiac eztian,
derrapatzic ezta iraqan
bazuen ezbiau.

7

Afaitzen ziñdiaren
nere quartiac,
escaberrizac eta
tradau guztiac,
ezdatzen eraiñen
pensario ilbiria,
nuarte ciudad baguiac
ezaiza triztac.

8

Bost pufialeqa lancago
ezaiziac berari
eu Jesus eta ez aqueac
jaun ian zuqedirijo;
ezzar tristia ugaraac
andriari bagoiri,
bolia ezin iqueac
eztiac erdia.

9

Berari tirazion
pecharac erdira
ezta ez pasatuac
ezaudet aguia;
ezzar eta ezaiza
zualdian biao,
eu gualdirie ziradac
derrapatzic illac.

10

Es iaun bezilarac
ezao ez ilhac,
ezta ez martir
guiqui debillenac,
ezio ez aguiada
irten zuen eskatzic,
justicia altoac
ezizaiza ziestic.

11

Ciradu ta tirazia
zic berzac gogotic,
lau gizaon tiro batian
ez ziraza erediz;
ezta ez criotac
gau bakiac aguin
ezbaiez ezta ezaiz
zai aroac ezi jaqoin.

12

Criztau ezaiu biotzac
iaungoiri,
guiztiari ezaiac
ziaqo berriz;
ziel zuela bertan
diria ta aldia
aguin zai ezpazac
zuadiac aldia.

13

Galdiazac gaztac
guiaac erazaiza,
ziriatu ziñdiaiza
*lapur famatac;*
ziñdiac bazac
nere erraqatac,
bella billiaac zuac
zac ezcutatac.

14

Partiac az ezbillac
gau ta eguzac,
zaenigac frazac
bazac ingurac
ya desezzerac
ez zendiac ilac,
ala ez zac zapi soldada
zenonez il zitac.

15

Urte bete ostac
bati lapur aguiñ
bakiac zac zac
zac zac ilac;
zinbeste criztac
galtzac aguia,
eskaquit ez guztac
biazdac zac zac.

16

Atzac biaidu zirac
neri notiac,
zaqueac bacac
gazac gazac;
erabazac zac
nere zac zac
zac zac zac
quentzac bizac.

17

Ayac ez ezkac
zac zac zac
partiac zac zac
zac zac zac
zac zac zac
z

desberdinak ematen ziren: santuen bizitzak, neska-mutilen arteko haserreak, bertso barregarriak, gerrateko berriak (oroit karlistadetako propaganda eta abar)… Bertso-paperetako generoetako bat beraz urkabe-bertsoena zen, zalantzarik gabe. Kontuan izan dezagun, bestalde, bertso-paper hauetako bertso-sailak jendeak buruz ikasten zituela. Buruz ikasitako bertso hauek "ahozkotu" egin ziren. Erdaraz "ahozkotu" esateko "popularizarse", "oralizarse", "tradicionalizarse" aditzak erabiltzen dituzte. Hona Jesús Antonio Cid-en hitz argigarriak:

> "Entre los infinitos poemas narrativos que existen o han existido, sólo una minoría muy exigua ha llegado a convertirse en baladas tradicionales. Aunque en su origen las baladas son siempre la creación individual de un poeta concreto, sólo la aceptación de la colectividad les confiere el carácter de baladas tradicionales. Si se produce esa aceptación es ya indiferente para el estudioso cuál sea el primer texto "original" y cuáles fueron las circunstancias de la creación de ese texto y de su autor. La comunidad de transmisores olvida quién fue ese autor, y los "textos" empiezan a alterarse muy profundamente. Esa sería la piedra de toque de las auténticas baladas tradicionales: el que vivan en versiones distintas que reformulan radicalmente a veces el modelo del poema originario. Eso no sucede, o sucede sólo en muy escasa medida, en otro tipo de poemas narrativos, los llamados "romances vulgares", "romances de ciego" o "de cordel" ("balada arruntak"), de difusión más reciente, en los que las versiones memorizadas no cambian, o cambian muy poco, respecto al texto original, y en donde a veces no se olvida nunca del todo al autor. El caso de "Markesaren alaba" de Iturrino, larga composición que es fácil todavía hoy encontrar "oralizada" en varias partes del país, ejemplifica bien la distinción que los propios transmisores establecen entre los "kanta zaharrak" y los "bertso berriak."[6]

[6] Gorago aipatu Jesús Antonio Cid-en "Romancero hispánico y balada vasca" in *Antonio Zavalaren ohoretan Herri literaturaz gogoeta*, Universidad de Deusto 2000, 71 or.

Urkabe-bertsoak jendeak buruz ikastean, gauza markagarri bat gertatu ohi da. Bertso-sail diferenteetako bertsoak lotzen eta nahasten dira transmisoreen memorian. Tankera horretakoak ditugu, esaterako, "Lapur famatuarenak". Eman dezagun sail horretako bertsoak berri-emaileak emandako modura leku batean baino gehiagotan bilduak daudela. *Euskal baladak antologia eta azterketa II* liburuan, 224-227 or., "Jose de Larrinaga" izenburupean datoz. "Jose de Larrinaga" izenburuak, ostera, beste bertso-sail bat ekartzen digu gogora, hurrengo puntuan iruzkinduko dugun "hamalau heriotzarena". "Lapur famatuarenak" bertso sailari "Hamairu heriotzarena" ere deitu izan zaio. Labayru Ikastegiak ateratako *Mendebaldeko Euskal Baladak Antologia* lanean, 104-113 orrialdeetan, Dimako eta Morgako aldaerez gainera, eskuidatzi bateko bertsoak ere ematen dira. Bertso-sail guzti horiek ezin ekarri ditugu hona, labur beharrez. Zer nolako bertso-sailak diren urkabe-bertsook ikusteko ondo iruditu zaigu jatorrizko bertso-papera lantxo honetan irakualeari eskeintzea.

## "HAMALAU HERIOTZENA" BERTSO-SAILA

Hau dugu bertso-sailik famatu bezain ezagunenetakoa, inolako zalantzarik gabe. Manuel Lekuonak bere *Literatura oral euskerica* lanean sartu zuen, eta, gerora, Jesús Maria de Leizaolak bere *La "cró - nica" en la poesia popular vasca* liburuan "la crónica judicial o criminal" bezala izentatzen duen sailean ere atera zuen. Bi liburu horietan, xehetasun txikiak gorabehera, eredu bera agertzen da. Leizaolaren *Estudios sobre la poesía vasca* lanean,194-200 orr., ostera, bost ahapaldi gehiago dituen beste aldaera bat eskeintzen zaigu. Leizaolaren eredua bertso gehiagokoa bada ere, zabalen dabilen Lekuonaren eredua

ekarriko dugu hona[7]. Lehen pertsonako urkabe-bertsoetako eredu ederra denez gero, jarri dezagun hemen:

1

Milla zortzireun eta ogeitabostian
au amairugarrena Urriko illian
Martin Itxeberriko Altzibarrenian,
atiak jo nituen ongi illunian,
baita ireki ere borondate onian.

2

Ixtimatu ninduten konde bat bezela;
sillan exeri eta apaldu nezala;
konformatu ziraden familiyan ala
nagusiya ta biyak etziñen giñala…
berari sartu niyon petxutik puñala.

[7] Duela hogei bat urte gure kantari ezagunenek ere beren diskoetan zabaldu zuten kanta hau. Oraintsu Luis Baraiazarrak ere artikulu batean bertso-sail hau aipatzen du (ez dut orain esku artean erreferentzia zuzena, *Karmel* aldizkaria 2002 urteko azken aleetakoa dela deritzat). Leizaolaren eredu ahapaldi gehiagokoa agertzen da *Euskal baladak, antologia eta azterketa II* lanean, 220-223 or. Lehen iruzkinetakoa Iñaki Eizmendi "Basarri" bertsolariak eskeini zion *Aranzazu*, Mayo 1962, 148-149 orr. Basarrik Arrate irratian kantatu omen zituen bertso hauek 1962an eta bere abots sarkorraz sekulako zirrara sortu omen zuen entzuleengan. Horrexegatik Markina-Etxebarriko Bernardino Barrutia abadeak bere herriko *Gure erria* aldizkarian publikatu zituen bertso hauek. Interesgarria da heriotzetako bat herri hartan bertan gertatu zela. Ilunxko dagoen hasierako bertsoko "Markin-Etxebarriko Altzibarrenian, / atiak jo nituen ongi ilunian,". Bernardino Barrutiak eliza-agiriak ikusiz datuak berretsi zituen. Zehaztasun guzti hauek eta gehiago eman zituen Miriam Etxabe etxebarritarrak "Hamalau heriotzena" artikuluan. Ikus bedi *Garaia*, lehen zenbakia, 1987ko abendua, 14-15 or. Bertso-sail honen iruzkin laburra: Xabier Amurizaren "Hamalau heriotza" *Punto y Hora*, 1984, 23 al 30 de marzo, 50 or.

3

Oitikan saltatu zan eriyo-igesi;
nigandik alakorik etzuen merezi.
Alabak zuenian aita ala ikusi
apaizaren eskaka bertatik zan asi;
aizkora trixte batez niyon burua autsi.

4

Ikusi zittunian senarra ta alaba,
Katalina gaxuak, ai, ura negarra!
Ez bazuan jarri nai bestiak bezala
dirua non zeguan esan beriala;
ongi banekiyela dirurik etzala.

5

Santo Kristo, zurekin konfesa nadiyan
zer obra egin nuen nik Katalauniyan.
Lerida'n pasa eta Urbil'en erriyan
bost lagun bizi ziran beren familiyan;
giziyok il nittuen gabaren erdiyan.

6

Gorputzeko ikara, animako lotsa
zeren egin ditudan hamalau eriyotza.
Aditu ezkeroztik diruaren otsa
bidean atera-ta botatzeko poltsa
aterako niola bestela biotza.

7

Dirua eman ta gero kentzia biziya
ori egitten nuen gauza itsusiya.
Jaunak bre eskutik nenguan utziya;
orain errezatzen dut al dudan guziya
arren alkantzatzeko Beraren graziya.

8

Ogeitabost urte da nere edadia
-nagusi on batentzat ai zer mirabia!-
Ez naiz pekatuaren mantxarik gabia:
beti okerrerako abilidadia
penetan pasatzeko eternidadia.

9

Jainkoaren aurrerako nik daukadan lotsa,
zeren egin ditudan ainbat eriyotza;
azkeneko sententziya izain da zorrotza;
lau laurden egin ta kentzeko biyotza
ai! ura urkaberako aiziaren otza!

10

Jose det izena ta Larreina lombria:
Mendaro´n jayua naiz, bertako semia;
deskalabratua naiz munduan lajia;
amak egin dezala beste bat obia,
ain da izugarriya nere maldadia.

11

Lenguan izandu zait anaya gaztia;
lastima egiten zuen nere ikustia.
-Ai zer nola ote diran aita-ama tristiak!
Nitzaz eskarmentatu balittez bestiak…
Ni ere izutzen nau biziya kentziak.

Bertso eredugarriak dira alderdi guztietatik. Zein lekutako euskaran onduak dauden norbaitek galdetuko balu, ez letorke gaizki *Basarri* bertsolariak ematen duen argibidea: "Bertso oietako izkera ta joskera ikusirik, jarri zituen bertsolaria Oiartzun ingurukoa edo naparra izango zala derizkiogu". Guk geure lantxo honetarako egiturari erreparatuko diogu. Tankera honetako bertso-sailetan bi zati

nagusi agertu ohi dira. Lehen zatia heriotza edo egitada odoltsuen berri ematen da ordena kronologiko batean eta bigarren zatian damua agertzen da. Bi alderdiak elkarren osagarri dira eta batez ere bigarrenak du gorarik handiena. Honelaxe adierazten du Orixek: "Aquellos de nuestros poetas que han estampado sus versos en algo más estable que las hojas volanderas, no han aprovechado tan inspirador asunto tan digno de la poesia, ya que, como hemos insinuado, se trata de celebrar, no un insigne crimen, sino un insigne arrepentimiento".

Jendearen eskarmentagarri jarritako bertso hauetan egon ohi da, neure ustean, halako klimax bat, halako gorengo pundu bat. Behin kriminalkeria guztiak edo gehienak erreskadan aipatuz gero, urkabeko berri eman ohi da. Urkabeko berri diogunean, zein den sententzia, zein lan egingo duen borreroak eta abar aipatzen da. *In crescendo* edo indar dramatikoa gora joate hori *"ai! ura urkaberako aiziaren otza"* horretan giltzatzen da. Indar handiko esaldi horrek zirrara lortzea du helburu, eta behin baino leku gehiagotan agertzen da. Behin baino gehiagotan agertzen dela esan dugu, aurkikuntza estitiko handia duen esaldi hori "esaldi ihartu" edo "klitxe onartu" bezala bertso-sail batean baino gehiagotan ikusiko dugu. Hona esaterako, Azkuek Amorebietan bildu eta Orixek ere iruzkintzen duena:

Au da urkamendiko aizearen otza,
Jaunaren aurrerako nik daukadan lotsa;
zerren egin dodazan zazpi eriotza
zazpi eriotza ta ¿non dot neuk biotza?

Ikusten denez, nahiz heriotza kopurua desberdina izan, esaldi indartsu berak edo antzekoak ditugu. Puntuak ere berak dira. Batean lau laurden egin eta bihotza kenduko diote, bestean, hainbat kriminalkeria egin ondoren, non duen bihotza galdetzen du. Azken esaldi hau, ordea, ez da berri-emaileak emana Azkuek berak asmatua baizik, geroago ikusiko dugunez.

Bada gauza polit bat, hemen, iraizean bada ere, aipatzea komeniko litzatekeena. Mendebalderagoko ereduetan "urkamendi" hitza ikusiko dugu, ekialderagokoetan "urkabe". Hitz biak, gainera, orónimo edo mendi-izen bezala ere ugari ditugu. Bi hitzek erro bera dute "urka" eta batean "mendia" dena bestean "habea" dugu, Mitxelenak dioskunez. Urkamendi hitzak silaba bat gehiago duenez gero, "… urkamendiko (h)aizearen (h)otza" izango da, hots, "nongo hotza". Urkabe hitzarekin, ordea, "(…) urkaberako (h)aizearen (h)otza" edo "urkabera(t) bideko (h)aizearen (h)otza". Baina kontu hau utzi dezagun hurrengo puntu baterako.

## "ESTUDIANTEA NAZ" EDO "ESTUDIANTE KONDENA - TUA" BERTSO-SAILA DELA ETA

Euskalerriko Mendebaldean, Bizkaia-Gipuzkoetan, "Estudiante kondenatua"-ren bertsoak ezagunak dira. Urkabe-bertso hauek ere gorago esandako egitura zaintzen dute. Egitura bera duela esaten dugunean, sarreraren ondoren kriminalkeria guztiak aipatzen direla adierazten dugu. "Hamalau heriotzareena" bertso-sailean bezalaxe, baditu bateratasun batzuk. "Hamalau heriotzarena" bertso-sailean bezalaxe norbait datorkio kartzelara bisitatzera eta lastima hartzen du. Hona *Mendebaldeko Euskal Baladak Antologia* (Labayru Ikastegia 1995, 101-103 or.) laneko bi ereduak:

**Dimako aldaera**

1

Estudiantea naz oraindino gaztia
amazortzi urte be kunplidu bagea.

2

Iru pezeta zala kartazko jokoa
bertan ilde itxi neuen estudiante majoa.

3

Au zen kalabozoa ilun eta triste
ni ona sartu nintzela diradez iru urte.

4

Pozik egin lezake beste arenbeste
libratzeko esperantza baldin bagendu be.

5

-Ama, gura dau berrorekni libradutea?
Eriotzea egin dot ezta posiblea.

6

Atzo etorri jatan arreba gaztia
lastime emoten daustela onelan ikustea.

7

Ai ene Jangoikoa kanpaiaren otza
igual izingo da urkamendikoa.

8

Au de urkemendiko aizearen otza!
Gure Jaunen aurrerako nik daukedan lotsa.

## Zornotzako aldaera

1

Estudiantie naz ondino gaztie
hamazortzi urte bere kunplidu barik nik.

2

Iru peseta zala kartazko jokoa
bertan ilde itxi neban estudiante majoa.

3

Au da kalabazuko ilun eta triste…
emen sartu nintzela dira sei-iru urte.

4

Pozik paseko nekez beste orrenbeste
libretako esperantza baldin baninduke.

5

Iru anaie gara Jangoikoak emanik,
bata zan apaiza ta beste bi fraile bi.

6

Atzo etorri jatan arreba monjia
errukia zen bezala neu olan ikustia.

7

Orain edaten dot nik basutik ardaua
seguru izengo dala gura Jainko jaunaz
akordu ordue.

8

Kanpaiaren otsa da agoniakoa
seguru izango da urkamendikoa.

9

Au da urkamendiko aizearen otza
Jaunaren aurrerako nik daukadan lotsa.

*Euskal baladaren Azterketa eta Antologia* (Hordago publikapenak, II alea, 218-219 or.) liburu bikainean, beste aldaera agertzen da Dimako Eduarda Bilbaori hartua. Hona gure modura ahapaldietan tolestaturik:

1

Estudiantea naiz oraindino gaztea
hamazortzi urte be konplidu bagea.

2

Hiru pezeta zala kartazko jokoan
bertan hilda itzi neuen estudiante majoa.

3

Hau dek kalabozoa ilun eta triste
ni hona sartu naxela direz hiru urte.

4

Pozik pasauko neunkez beste harenbeste
libratzeko esperantza baldin bagenduke.

5

Atzo etorri jatan arreba gaztea
lastima hartzen deustela holan ikustean.

6

Haregaz bialdu nion arreba mojari
erregutu deiola Birjiña Amari.

7

Ama zuk gure bozu ni libradutea;
heriotza egin dot ez da posiblea.

8

Hau da urkamendiko haxearen hotza
seguru izango da agoniko kanpa.

Hiru aldaera hauek antzera batekoak badira ere, zeinek bere edertasuna du, zalantzarik gabe. Zenbait xehetasun hemen iruzkintzea zilegi badakigu, ohart gaitezen Dimako lehen aldaeran. Aldaera honetan, azkenaurreko ahapaldian, "Ai ene Jangoikoa/ kanpaiaren hotsa!" agertzen da, eta azkenaurrekoan dagoeneko ezaguna dugun "Au de urkamendiko/ haizearen hotza". Bizkaiko euskaran, jakina, hitz biak, "hotsa" eta "hotza" alegia, berdin ebaki edo ahoskatzen dira, nahiz zentzuz oso bestelakoak izan. Egitura bereko bi esaldi hauek, beraz, elkarren indargarri eta sendogarri eder dira, eta nekez ikusiko dugu bestetan egitura bereko bi sarrera horiek lortzen duten zirrara.

Irakurle ohartu bati baino gehiagori etorriko zitzaion burura, behin honetaraz gero, harako "Frantzie kortekoa" edo "Frantziako anderea"-ren Undurragako (Zeanuri) aldaera hura: "Kanpai bat en-

tzuten dot/ ez dakit nongoa/ igual izango da/ agoniekoa"[8]. Kanpaihotsa entzutea hona aldatu ditugun hiru ereduetan ikusi arren, lehen ereduan gainerako bietan ez bezala agertzen da. Azken bietan kanpai hori agoniakoa ote den esaten da, "Frantziako anderea "baladan bezala. Lehen ereduan, ordea, kanpaia urkamendikoa dela esaten da, hurrengo ahapaldian, halako bihurki edo ritornello -edo erdarazko tradizioan anadiplosis- polit bat eginez "Au da urkemendiko/ aizearen otza" indartsua sartzeko.

Liburuetaraturik dauden hiru aldaera horiez gain[9], badago, zorionez, beste adibide ederrik ere. Hona, esaterako, gorago aipatu dugun Orixeren *Euzkadi* egunkariko artikuluak sortu zuen beste beste artikulutxo bat:

> "Geure izparringiyan, 27'gko zenbakiyan, Orixe'k "Los reos poetas" diñona irakurrita, yatort gomutara, arako mutil koskorretan auzoko Pantzezke Mendotz-Osteingoko andra alai ta onari, ainbeste bider abestu eragiten geuntsozan itzneurtubak.
>
> Amaika iluntze alai igaroten denduzan lenengo gudako yazoera, hainbeste ipuin barregarri, eta abesti politak entzuten: !ze tamala artzen daben batek, orduban ain atsegin izaten bayakuzan, gaur askoz geyago atsegin yakuzan abesti eta ipuin alai ta ederrak, ez jakiñagaz ardura barik galtzen itxi bearra?
>
> Ainbeste ipuin eta abestitatik, izneurtu bakar batzuk gogoratuten yataz arako yokoaz sorturiko asarreaz gixona erail eta gero, urkatuteko zigortu eben gizonenak: uste dot bilduta euko ditubela baten batek, baña bada-ezpadan, or doyaz" (*Euzkadi* 1 de junio de 1927, nº 4554):

---

[8] Ikus bedi, nahi izatera, aipatutako *Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia,* 31 or.

[9] Xabier Amurizaren *Bizkaiko bertsogintza izengabeak I,* 278 or., agertzen dena *Mendebaldeko Euskal Baladak* liburutik aldatua da.

1

Iru ogerleku ditut yokuan irabazik
eurok dirala medio gixon bat ildot nik.

2

Ama biyotzekoa ez egin negarrik
gixon bat il dot eta ordea zor dot nik.

3

Oraintxe entzuten dodazkanpatxu tristeak
urrean izango dira nire agoniekoak.

4

Aurrean zagozenok parkatu parkatu,
Aita Gure banagaz nik danok emendatu.

Artikulua *Amez* izengoitidun batek idatzia dago eta testigantza ederra eskeintzen digu. Guk, gainerako ereduekin bezala, ahapaldiak geure erara tolestatu ditugun arren, ez dugu testuan inolako aldaketarik egin. Nongoa ote da eredu hau? Bizkaiko bai, baina zein lekutakoa? Geure lehen peskizak "Osteingo" baserria edo etxea non dagoen bilatzera zuzendu ditugu. "Osteingo" baserri-izena Lemoiz, Laukiz eta Gatika herrietan dago. Uribe kostan, beraz[10]. Eredu honek gorago agertu ditugun ereduekin begi-bistako bateratasunez lekora, badu berritasunik ere. Azken ahapaldia, esaterako, orain arteko ereduetan ez genuen ezagutzen. Gainerako hiruretan ere badago gauza politik: kondenatuak entzuten dituen kanpaiak tristeak dira… Amarekiko autua ere desberdina da… Baliteke, dena den dela, zerbait orraztua

[10] Onomastika batzordeko Mikel Gorrotxategigana jo dugu argitasun bila. Bai eta prestu asko eskeini ere. Berak emandako zehaztasun guztiak ez dugu uste hemen jartzea komeni denik. Bego, beraz, horretan.

izatea eredu hau. Orraztua diogunean, txukunduxea edo erdal usaineko hitzak kenduak izatea adierazi nahi dugu. Joko-diruak, esaterako, "pezetak" izan beharrean "ogerlekoak" direlako, eta entzuten duen kanpai-hotsa "hurrean", hots, beharbada, agoniakoa delako eta ez "igual" edo "seguru", gainerako hiru ereduetan bezalaxe. Besterik ere izan liteke, jakina. Zergatik? Eredu hau ia hirurogei urte lehenago dokumentatua dagoelako, eta biltzaile-idazlea ez da mutikoa, mutil koskorretan kanta bat emakume bati  ikasi zion gazte, sasoiko edo adindua baizik.

Adibide hau ez da hor-han-hemengo artikuluxketan hegabanatua dagoen ale urregorrizko bakarra. Ia gaurko egunetan, Galdakaoko *Lapiko* aldizkarian (Bigarren zenbakia, Hazila abendua) hauxe irakurtzen dugu:

1

| | |
|---|---|
| “”Estudiantea naz | oraindiño gaztea, |
| amazortzi urte bere | kunplitu gabea. |

2

| | |
|---|---|
| “Iru peseta zala | kartazko jokoa |
| bertan ilde itxi nun | estudiante majoa”. |

3

| | |
|---|---|
| “Au da kalabozoko | ilune ta triste |
| ona sartu nintzela | dira iru urte”. |

4

| | |
|---|---|
| “Pozik egingo neukez | beste orren beste |
| libretako esperantza | baldin baninduke”. |

5

| | |
|---|---|
| "Atzo etorri jatan | ordena berrie |
| kenduko dostiela | goze egarrie". |

Eredu berri hau transkribatzeko orduan, orain arteko irizpideari jarraitu diogu: iturrian dauden bezala transkribatu ditugu eredu guztiak. Egin dugun berritasun bakarra ahapaldiko bertsolerroak moda berrira –nolabait modu laburrean esatearren– tolestatzea izan da. Gaur eguneko irizpide berri, eta gure ustez, onak erabili ditugu. Modu horretara, kasurako, nahiz azken ahapaldian *goze egarrie* ekarri, ez dugu "gose-egarrie/a" transkribatu.

Azken eredu honek, aurrekoak bezalaxe, badu berritasunik. Azken ahapaldia, esaterako, orain arteko eredu guztien artean ez genuen aurkitu. Azken ahapaldi honek, gainera, badu aparteko indarra. "Gose-egarria" kendu ez da besterik laster sententziatuko dutelako berria ekartzea baino. Behin hilez gero, begi-bistako kontua denez, ez dagoelako gose-egarririk. Gure orain arteko ereduetan, berria dela esan dugu azken ahapaldi hau, baina ez, jakina, beste lekutan agertzen ez delako. Azkuek, esaterako, bere kantutegian (lehen tomoan 385 kanta, 482 or.), zein *Euskalerriaren Yakintza*-n (IV alean, 154 or.) honelaxe dakar:

1

| | |
|---|---|
| ¡Au da urkamendiko | aizearen otza! |
| ¡Jaunaren aurrerako | nik daukadan lotsa! |

2

| | |
|---|---|
| Zerren egin dodazan | zazpi eriotza, |
| zazpi eriotza ta | ¡non dot neuk biotza! |

3

Atzo etorri ddatan agindu barria,
laster kenduko ostela gose (y) egarria.

4

Bai ta etorri ddatan arreba gaztea:
tamal artzen ebala ni olan ikustea.

Azkuek eskeintzen digun eredu honek ere, gorago ikusi dugun *Euzkadi* egunkarikoa bezalaxe, garbituxea dirudi. Gainerako ereduak ikustea besterik ez dago berak aitortzen duen pekatutxoa geure begiz ikusteko. Hona pekatua Azkueren hitzetan: "*Agindu* y *tamal* substituyen a *ordena* y *lastima*. En la primera estrofa se ha puesto al fin ¡*non dot neuk biotza*! porque la cantora no acertaba a darle remate"[11].

## "ESTUDIANTE KONDENATUA"-REN EKIALDEKO EUSKALKIETAKO ALDAERA BERRIA

Gorako ikusitako sei ereduetako euskara Mendebaldekoa dugu, inolako zalantzarik gabe. Eredu guztiak, gainera, itxura guztiak direnez, Bizkaian bilduak ditugu: Dima, Zornotza, Uribe kosta, Dima, Galdakao, Zornotza. Mendebaldekoa ez ezik, Bizkaian berean ez dago Lea Artibaiko eredurik ere. Hau da Bizkaiko erdialdeko ereduak ditugu guztiak.

[11] Oraingoan ere, iturrian bezalaxe transkribatzen ahalegindu gara. Azkuek kontsonante gangardunak jartzen dituenean, guk grafema hori geure lantxo honetara ekartzeko kontsonantea bikoiztu dugu. Modu horretakoak dira "etorri ddatan" eta abar.

1

Cantore berri batzu lastimagarriac
carcelan dagoenac berac eçarriac
orai eman dauzcute azquen abisuac
galdu behar tugula gure biciac
edequiren dauzcute gosse egarriac.

2

Hau da calabozua ilhun eta triste,
ni hemen nagoela badu hirur urthe:
libratcerican ere nic ez nuyen uste;
bocic pasa nitzaque berce hunenberce:
azqueneco ordena orai eman dute.

3

Ikhusten içan ceraut anaya gaztia
lastimatcen çuyela ene ikhustiac:
nola othe dirade aita ama gaichoac:
ni ere lotxatcen nau biciaren galtziac,
escarmenta balite ni baitan guciac.

4

Gaztiatu diot neure arrebari
gomenda naçayola ama Birginari,
urkhatceco egunetan nagoela sarri,
gaichoac harturen daut pena harrigarri,
ez nuyen nahi, bainan beharco dut yarri.

5

Yincoaren aitzinian nic daucadan lotsa
ceren egin ditudan hirur heriotza:
urkhatu behar dudala aditu dut hosa,
laur quarto eguin eta khentceco bihotza
urkhaberat bideco airiaren hotza!

6

Adios Nafarrua bai eta Francia,
aspaldian largaric daucac Valencia
urkhatu behar dudala ukhan dut sentencia,
urkhabera heldu eta khenceco bicia
gueroztic borreguac badu licencia.



Au-cas où vous ne les connaissiez pas, je me suis avisé au sujet du conflit en supposant l'attaque du convoi où j'ai trouvé cette copie a dû être faite entre 1810 et 1830 – Si vous utilisez a texte, il faudra, je pense, rajeunir l'orthographe et ajouter la ponctuation qui convient.

1 Cantore berri batzu lastimagarriac
Carcelan dagoenac berac egarriac
Orai eman dauzcute esquen ebiliac
Galdu behar tiguela gure biciac :
Edequiren dauzcute gosse egarriac .

2 Hau da calaborzua illun da triste ;
Ni hemen nagoela badu hiru urthe !
Lifratcerican ere sic ez nuyen uste ;
Bocic passa nitzaque bera humandoyen :
Azquenecco ordena orai eman dute .

3 Ikhusten ipan ceraut anaya gaztia
Lastimatzen çuyela ene ikhusticiac :
Bela ottre dirade aita ama çaideac ;
Ni ere lotzatzen nau biciaren galtziac ,
Escarmenta balite ni baitan guciac .

4 Gaztiatu diot neure anaiari
Gomenda naçayola ama Birginari ,
Urkhatzaco egunetan nagoela Sarra ,
Gaizhoac hartuen dauz pena harrigarri ;
Ez nuyen nahi , baiman behar dut yarri .

5 Yincoaren aitzinian nic dauzadan lotza
Ceren eguin ditudan hiru heriotza :
Urkhatu behar dudala aditu dut hotza ,
Lau quarto eguin eta khentzeco bihotza
Urkhabrat bideco airiaren hotza !

T.J.r.P

6 – Adiki hafarrua bai eta Francia ,
Afaldiko bazaric dauzac bilancia
Urkhatu behar dudala ukhan dut lantzea ,
Urkhabrac galdu eta khenzeco frida
Guiriçtac farraguac badu bizcia .

Sei ahapaldiko "Estudiante kondenatua"-ren adibide polit hau Louis Dassance zenaren paperetan aurkitua da. Aita Donostiren artxiboa erabilirik *Nafarroa-ko euskal-kantu zaharrak* publikatu zuen Jorge de Riezuri zuzendua dago delako Dassancere paper hori. Louis Dassancek aurkitu zuen kopia 1810-1830 ingurukoa zela dio bere idatzian: "Cette copie a dû etre faite entre 1810 et 1830. Si vous utilisez ce texte, il faudra, je pense, rajeunir l'orthographe et y ajouter la ponctuation qui convient". Eredu berri honek Baxenafarroako euskararen ezaugarriak ditu bete-betean. Nahiz ekialdeko euskalkietakoa izan, baditu gorago puntuan eman ditugun ereduekin bateratasun nabarmenak. Hona, beraz, ahapaldiz ahapaldikako iruzkin laburra.

Lehen ahapaldiko haseran bertan gure artean iharturik edo klitxeturik dagoen egitura batez hasten da: Cantore berri batzu. *K(h)anto - re berriak* direlakoak Baxenafarroa eta Zuberoako izendatzeko era dugu. Gainerako Euskal herrietan "bertso berriak" edo "bertso jarriak" esan ohi dugu. "Kantu berriak" izendapena ere agertzen da Lapurdi eta Baxenafarroan. Jean Etchepareren bertso-paperetan, "cantu berriac" ("Doga buru-pikatçailiaren cantu berriac", "Cantu berriac 1888an emana"), eta "cantu dolorosac" izendapenak agertzen dira. "Lastimagarriac" adjektiboak askotan adierazten ditu, gure artean, heriotzen berri ematen dutenetakoak direla. Oroit naiz, esaterako, Bitoriano Gandiagak Oñatiko Araotz auzoan bildu zituen "Frantzia kortekoa" balada, kantu lastimosoa zela diola bere *Euskara* aldizkariko artikuluan. Hirugarren ahapaldian ere "lastimacen çuyela ene ikhustiac" esatean "lastima" hitza aipatzen du. Gainerako Mendebaldeko ereduetan ere, gorago ikusi dugunez, "lastima artu" esapidea agertuko da. Lehen ahapaldi honek badu berezitasun polit bat, ageriki agertzea urkabeharra bera, hots, kondenatua bera dela bertso-jartzailea. Orixek esan ohi zuen "reo poeta" baten ondoan gaude. Beste hitzez esanda, beste Bordaxuri baten aurrean gaudela… Gure Mendebaldeko bi azken ereduetan agertzen den esapide bera

"kenduko dostiela—goze egarrie" (Galdakaokoa), "laster kenduko ostela—gose (y) egarria" (Zornotza, Azkue) agertzen zaigu gure Ekialdekoan: "edequiren dauzcute gosse egarriac". "Kendu" aditzaren ordaina da ekialdeko "edeki". Aditz denbora ere bera dugu kasu guztietan: futuroa edo etorkizunekoa. Bi lehen kasuetan "kenduko" dena, ekialdekoan "edekiren". Laster gose-egarria kentzea edo edekitzea, ez da besterik laster justiziatzea edo urkatzea baino. Egitura hori bere laburrean indartsua denez gero, eta gartzelaldiko egoera tamalgarriaren definitzaile zorrotza, Euskal Herriko bi muturretan gorde da. Gure adibide berri honetan, kartzelan dauden urkabehar batzuek urkatu behar omen dituzte. Aditz guztiak kondenatu bati baino gehiagori zuzenduak daude: "eman dauzcute", "galdu tugula", "edequiren dauzcute"…

Bigarren ahapaldi honek ere kidetasun bete-betekoak ditu goragoko puntuko Dima eta Zornotzako 3 eta 4 ahapaldiekin, *Euskal Baladak* liburuko Dimakoarekin eta Galdakaokoarekin. Mendebaldeko eredu guztietan, gainera, nahiz aldaera higatu zein zatikakoak izan, beti hartzen dute leku bera. Preso dagoen kalabozoa edo ziega iluna eta tristea da kasu guztietan. Aldi eta alde guztietako kalabozoak ilun eta triste izan ohi dira, nonbait. Ilun eta triste adjektiboak *epithetum ornans* direlakoak dira, hots, izenaren berezko tasun edo kualitatea adierazten dutenak. Bitxia badirudi ere, bi eratara ematen da Bizkaiko aldaeretan: *kalabozo ilun eta triste/ kalabozoko ilun eta triste*. Bigarren era hori adjetikboa izan arren, formaz balio substantiboa omen du. Geroago ikusiko dugun urkamendiko haizearen hotza bezalaxe. Gure ekialdeko eredu honetako hitz zein aditzak ekialdeko euskararen ezaugarridunak dira. Banan-banan ikusteak luze joko liguke, bainan ohart bedi aspirazioan *hirur, ilhun, urthe, hau, hemen, hunenbertze*, ekialdeko formetan *orai* (inesibo marka gabea, hots, -n gabea), *bozik*, (-)b*ertze* eta abar.

Hirugarren ahapaldiak ere lehengo lepotik du burua. Berdintasunetan Bizkaiko guztietan arreba etortzen zaio. 1 Dimako seigarrena "Atzo etorri jatan—arreba gaztea/ lastime emoten daustela—onelan ikustea", Zornotzako seigarrena "Atzo etorri jatan—arreba monjia/ erruki zen bezala neu olan ikustia". 2 Dimako bosgarrena "Atzo etorri jatan—arreba gaztea/ latima hartzen deustela—holan ikustean". Bizkaiko guztietan lehen lauko hori berdintsua da eta segida, ostera, ez dator bat. Gure oraingo eredu honek bateratasun bete-betekoagoak ditu "hamalau heriotzarena" sailarekin gure "estudiante kondenatua"-rekin baino. Ohart bedi M. Lekuonaren ereduko hamabigarren ahapaldiarekin: *Lenguan izandu zait anaya gaztia;/ lastima egiten zuen nere ikustia./-Ai zer nola ote diran aita-ama tristiak!/ Nitzaz eskar - mentatu balittez bestiak…/ Ni ere izutzen nau biziya kentziak.* Bateratasun harrigarri eta begi-bistakoak dira. Bakar-bakarrik Mendebalde eta Ekialdeko aldaerak daude. "Izutu", esaterako, "lotsatu" dugu ekialdeko euskalkietan. Adizkietan ere berdintsu, "zait" adizkia "zeraut" dugu Baxenafarroan (Xalbadorren bertsoez oroitu besterik ez dugu), "nitzaz eskarmentatu" ekialdekoa "ni baitan eskarmentatu" bihurtzen da… Harrigarria egiten zaigu bateratasunak batetik eta aldaerak bestetik. Lehen bi puntuak berak dira "gaztia" eta "ikustia" besteak berdintsu badira ere, ez dira erabat berdin… Aditz jokatuak ere bat datoz: "eskarmentatu balittez" mendebaldekoan, "eskarmenta balite".

Laugarren ahapaldi honek dituen kidetasunik nabarmenenak "estudiante kondenatu"–arekin ditu. *Euskal Baladak II*-ko 2 Dimako aldaerako "Haregaz bialdu nion—arreba mojari/ erregutu deiola—Birjiña Amari" oso antzekoa da gure aldaerakoarekin. Eder zaigu, zer esanik ez, ekialdeko aditzak *gazti(g)atu*, *gomenda(tu).* Adizki jokatuak ere eder dira *naçayola* (nor-nori-nork, ni Amabirjinari hark). Etorkizun marka *-ren* batez "harturen daut" eta abar.

Bostgarren ahapaldiaren kidetasunak bitarikoak dira, batetik "Hamalau heriotzarena"-rekin eta bestea "Estudiante kondenatua"-

rekin. "Hamalau heriotzarena" horretako hamargarren ahapaldia ia bera da. Mendebaldeko "Jainkoaren aurrerako nik daukadan lotsa" batetik, "Yinkoaren aitzinian nic daucadan lotsa", bestetik… Sententzia ere bera dugu, Mendebaldeko "lau laurden egin eta kentzeko biyotza" batetik, "lau quarto eguin eta khentzeko bihotza", bestetik. Azken epifonema indartsua ere bat dator "ai! ura urkaberako aiziaren otza!", "urkhaberat bideco airiaren hotza!". Azken amaiera urragarri hau, gorago ikusi dugunez, "Estudiante kondenatua"-rena ere bada. Gure aldaera berri honetan beste hitz berri bi agertzen dira: *bide* eta *aire*, haizearen ordez.

Seigarren ahapaldia da ezagutzen ditugun eredu guztietatik desberdinena. Badu hala ere berezitasunik. Tankera honetako bertso-sailetan askotan agertzen da azken agurra. Azken agurra, gehienetan, guraso zein ahaideei eskeinia da. Agurra eta parkamena eskatzen da, askotan, azkenaldera. *Euzkadi* egunkarikoa, esaterako, bitxienetakoa da: "Aurrean zagozanok—parkatu parkatu/ Aita Gure banagaz—nik danok emendatu". Gure seigarren honetan badirudi gaiztakeria-lekuei egiten diela azken diosala. Hitzaileak heriotzak egin dituen gaiztakeria-lekuak direla dirudi Nafarroa, Francia eta Valencia. Modu honetara, neurri batean "Hamalau heriotzarena"-ko seigarrenarekin du zerikusiren bat. Bukatzeko, azkenik, eder aparta iruditzen zaigu borreroari burua ebakitzeko edo lepoa bihurtzeko baimena ematea urkabeharrak berak*: gueroztic borreguac badu licencia*.

## HAU DA URKAMENDIKO HAIZEAREN HOTZA! EDO BERTSO LIRIKO DRAMATIKOAREN GAINEAN

Orixe handiaren pasarteak behin eta berriro ekarri ditugu lantxo honetara, geure esanen argigarri eta sendogarri. Ezin utzi, beraz, bere artikuluaren azken pasartea aipatu gabe:

> "Invitamos a nuestros poetas que con más éxito pulsan la lira a que fijen su atención en esta fuente, que así se ha enturbiado y aun cegado; a que ensayen la recontrucción de este género lírico-trágico en historias antiguas o actuales que no han de faltar; a que no se divorcien del pensamiento y sentimiento de un pueblo que, que con tan buen instinto cantó lo que le inspiraba su fe cristiana, tomando pie de los grandes extravíos de la humanidad."

Urkabe-bertsoak dramatikoak direnik ez dago dudarik, are gehiago esango nuke: ditugun dramatikoenetakoak direla. Baina inoiz edo behin lirikaren goia ukitzen ote dute? Nik uste izan dut dramatismoaren gorenean lirikaren esparruan ere sartzen direla. Bereterretxeren khantoretik hasita, badira gure baladetan dramatismo handiko uneak. Adibide eder bezala "Frantzia anderea"-ren zenbait ahapaldi ekarriko ditut hona. Aipatu dugun balada horretan, Frantziatik etorritako erraina hiltzeko sententzia ematen duenean amaginarrebak, halako dramatismo handia lortzen duen esaldia ateratzen da hilbeharraren ahotik:

**Bizkaian**

-Oi, horren puñalaren puntearen (-puntien) zorrotza!
Ikusi ez (-ikusiz) beste barik hiltzen deust bihotza! (Zeanuri)

-Ai, horren puñel horren zorrotzen zorrotza!
Berori ikusiek hilten dust bihotza! (Dima, Bargundia)

**Nafarroan**

-Ai, ai, kanabitaren puntaren xorrotza!
Laster arrapatu dio nere amaren bihotza! (Gartzain)

-Oi, kanabitaren puntaren zorrotza!
Usu arrapatu dio nere amari bihotza! (Sunbilla)

Balada beraren eredu desberdinetan, nahiz Bizkaikoetan nahiz Nafarroakoetan, badago bateratasun ikaragarri bat. Zergatik? Uste dugu, neurri handi batean, aurkikuntza estetiko eta eslistiko bati zor zaiola: -ren …-ren …(.-ren) adjektiboa-artikulua. Heriotzaren orduari zaion beldurra egitura finko baten bidez ematen da. Dramatismo puntu gorena lortzen du, gure ustetan, baladak une horretan. Indar poetiko zirraragarri horrezaz kanpotar ikertzaile begizoliren bat edo beste konturatua da aspaldi. Honelaxe adierazten du, esaterako, Jesus Antonio Cid-ek "Romance hispánico y balada vasca"[12] lanean: "A pesar de las profundas diferencias, creo que puede postularse en este caso un modela "genético" común a ambos tipos. Los versos, ciertamente expresivos y a mi juicio espléndidos que manifiestan el espanto de la joven esposa ante su inminente muerte son del todo semejante en ambos subtipos". Esaldi dramatikoak euskararen egitura berezi bat du oinarri. Izenak ondotxoan adjetiboa izan beharrean, hots, "etxe handia", izena genitiboan ematen da: "etxearen andia". Era horretara, adjektiboa sustantiboaren funtzioan agertzen zaigu. Badira adjektiboak bere muina edo funtzioa galtzen ez duela dioten gramatikoak ere. Herri literaturan askotxotan agertzen zaizkigu era horretako egiturak. Eman ditzagun dantza-kopla eta eske-kopla bana adibide gisa:

Urkiola mendiko axearen otza,
antxen ikusi neban praille kaska motza[13].

---

[12] Antonio Zavala et allii: *Antonio Zavalaren ohoretan Herri literaturaz gogoeta*, Deustuko Unibertsitatea 2002, 82 or.

[13] Kopla ezaguna da, baina iturriren bat aipatzekotan Ignacio Omaechevarria "San Antón de Urkiola y el misterio de los caminos viejos", *BRSVAP*, año XIV, 1958, 106-109 or.

Au aiziaren epela airean dabil orbela
itxi ontako jende leyalak gabon Jainkuak diyela[14].

Hemengo kasu bietako *haizearan hotza/ haizearen epela* sustantibo bera adjektibatzen dute. Lehenak badu gerora aztertuko dugu *Urkamendiko aizearen hotza!* horrekin bateratasun harrigarria. Bigarreneko haizearen epela ironikoa da inolaz ere, Gabonetan kantatzen den kopla horretako epelak ez du besterik adierazten kontrakoa baino: hotza. Pierre Topet Etchahunek ere badu egitura horretakorik "Ofizialenak" khantorean:

Harri giliren adreta!
Harek badaki zer phentsa:
Mürria gaxki egin eta erdiruak lohiz thapa!
Etxia lürtatü denian, harrien gaxtuak falta.

Hasierako *Harri giliren adreta!* ez da besterik "harginaren habila!" baino. Adjektiboa "adret" da eta *adreta* artikuluarekin. Gu aztertzen ari garen egitura darabil. Haritschelharrek honelaxe iruzkintzen du "adreta": *employé substantivement*. Behin honetaraz gero, esan dezagun gure urkabe-bertsoetako unerik erdiragarri bezain urragarriena, dramatismorik handiena duena "Hau da urkamendiko haizaren hotza" dela. Maila lirikoa ere hartzen duela esango nuke Orixeren hitzak neure eginez. "Frantzia kortekoa" baladan eta "Hamalau heriotzena" bertso-sailean eta guk artikulu honetara aldatu ditugun "Estudiante kondenatua" hiru aldaeretan, eta ekialdeko aldaera berrian, guztietan agertzen da esapide bera bertso-sailaren azken aldera. Urkabe-bertso askotako bukaera ere izan zitekeela uste dugu, halako egitura finko eta tinko bat, bukaera formula baten antzerakoa. Bukaera horrek jakina bere euskalki aldaerak izango zituen.

[14] Hainbat lekutan berdintsu kantatzen da kopla hau. Guk, Manuel Lekuona, "Fiestas populares", Anuario de la sociedad de Eusko-Folklore, 1922, 18 or.

Mendebaldeko euskalkietan *"Hau da urkamendiko—haizearen hotz*a" eta Ekialdekoetan "*Hau da urk(h)aberako—haizearen hotza*" / "*Urkhabera(t) bideko—airearen hotza*". Mendebaldeko euskalkietan *urkamendi* dena Ekialdekoetan *urkabe* da, silaba bat gutxiagokoa. Silaba bat gutxiago duenez gero, *nongo* egitura izan beharrean *norako* egitura du. Norako horretan bide hitza ere agertu daiteke espresuki. Haize hitzak gainera izan dezake ekialdean bere kidea: airea. Eta egitura biak ala biak zoragarriak dira. Zeren nor lokartzen da urkamendian zein urkamendirako bidean? Nork ez du zirrara hartzen une horretan? Urkabeharrak zein urkamendi indugurko ikusle begiluzeak zirrara gogorpean egongo dira, zalantzarik gabe. Behin honetaraz gero, zilegi bekit aspalditxo irakurri nuen gogoeta edo pasarte bat hona aldatzea. Ernesto Sabatoren *El escritor y sus fantasmas* (Seix Barral argitaldaria, 22 or.) liburuan honelaxe zioen:

> "Donnek zioen inork ez duela lorik hartzen kartzelatik urkamendira daraman gurdian, eta hala ere denok lo egiten dugula amaren sabeletik hilobira bidean, edo ez gaudela erabat iratzarririk.
>
> Literatura nagusiaren helburuetako bat: urkamendira bidean doan gizona iratzartzea da."

Urkabe-bertsoetan entzuleari ematen zaion astinaldirik bortitzena, bertsoetako gradazioaren gorena edo klimax delakoa lortzen duena, guk puntu honetan aztergai dugun esaldia da. Urkabe-bertsoetan bertsoz bertso halako goratze bat ikusten dugu, urkabeharrak urkamendira igotzen duenean mailaz maila gora doan bezalaxe. Behin urkamendian, gainerako urkamendi inguruko ikusleak baino gorago dagoenean, han goian eternitatetik hurbil, "urkamendiko haizearen hotza" sentitzeko aukera du. Gradazio edo klimax honetan Dimako lehen aldaerak lortzen du klimax-ik bete-beteena, bihurki edo anadiplosis baten bidez, batetik, eta egitura paraleloak erabiltzetik, bestetik:

7

Ai ene Jangoikoa kanpaiaren hotsa
igual izingo da urkamendikoa.

8

Au de urkemendiko haizearen hotza!
Gure Jaunen aurrerako nik deukedan lotsa!

Eta hau da, Orixe handiaren hitzak berriro ekarriz, bertso dramatiko-lirikoen erakusgarririk bikainena. Eta hau da, era berean, Donnek zioen literatura nagusiaren helburuetako bat, inoiz baino hobeki aplikatua: "urkamendira bidean doan gizona iratzartzea".

## LAPURDIKO LURBINTTOKO OHOINEN URKABE-BERTSOEZ

Gorago egin dugun urkabe-bertsoen sailkapenaz landa, egin dezakegu beste bat ere. Beste sailkapen hori bi eratako urkabe-bertsozkoa da. Urkabeharrak zein beste batek kriminalkeriak sailean eta elkarren ondoan aipatzen dituzten bertso-sailak osatzen dutenak, batetik, eta kriminalak edo hiltzaileak edo lapurrak nola urkaberatzen dituzten azaltzen duten bertso-sailak, bestetik. Bigarren tankerakoak ditugu Lanzko lapurrena edo Aita Donostiak "Los guardianos de Velate" lan politean aztertu zituenak. Tankera honetakoak dira, era berean, Lapurdiko "Lurbinttoko ohoinak" bertso-sail zoragarria. Bertso-sail hau *Herria* astekarian, 1962ko martxoaren 29an, 608 zenbakian agertu zen. "Lurbittoko ohoinak" izenburuaren azpian, *kantu zaharren arabera* adierazpena dator. Kantaren ondorenean herriak kantatzen duela edo kanta herritarra dela adierazteko hiru XXX datoz. Bertso-sail hori zaharra dela pentsatzen dugu. Zaharra diogunean,

XIX mendekoa edo beharbada lehenagokoa dela adierazi nahi dugu. Ezin izan dugu bertsoez berez gainera inolako zehaztasunik aurkitu. Lapur edo ohoin hauek Baionako katedralaren aurrean jarri zuten urkabean urkatu zituzten . Badirudi, kantaren eiteari oharturik, modu barregarri edo jostagarrian adierazia dagoela zein lapurreta zein ejekuzioa bera. Hona beste gabe kantua:

1

Lurbinttoko larretan ohoinak badire,
Gose-hamikatuak, hogoi bat bedere.
Hogoi bat bedere, -chiruri-chirurike,
Hogoi bat bedere, chiruri-chirure…

2

Handik pasatzen baita errege-bidea,
Sasipetik hor daude beha eta beha.
Beha eta beha, chiruri-chirurika,
Beha eta beha, chiruri-chirura…

3

Elgarri ari dire: "Ez duka ikusten
Hazparneko aldetik nehor hunat jiten?"
Nehor hunat jiten, chiruri-chiruriken
Nehor hunat jiten, chiruri-chiruren.

4

"Nehor ez Hazparnetik, Baionatik aldiz
Horra hantchet gizon bat heldu dena zaldiz!"
Heldu dena zaldiz, chiruri-chirurikiz
Heldu dena zaldiz, chiruri-chiruriz!

5

-Geldi, gizon maitea, baduka dirurik?
-Ba, jaunak, baderauzkat sakelak betherik
Sakelak betherik, chiruri-chiruririk
Sakelak betherik, chiruri-chirurik!

6

Ea sos hori hunat lehen baino lehen
Ala hortche berean bizia duk galtzen.
Bizia duk galtzen, chiruri-chiruriken
Bizia duk galtzen, chiruri-chiruren.

7

"Horra, har ene moltsa eta utz bizia"
Ohoinak joan diote fortuna guzia.
Fortuna guzia, chiruri-chirurika
Fortuna guzia, chiruri-chirura!

8

Zalduna itzuli da jin bide beretik
Bainan lehia gaitzean baitzen arindurik
Baitzen arindurik, chiruri-chirurik
Baitzen arindurik, chiruri-chirurik!

9

Baionan jandarmeak zituen mintzatu,
Eta hek Lurbinttorat zaldiz arribatu.
Zaldiz arribatu, chiruri-chiruriru
Zaldiz arribatu, chiruri-chiruriru.

10

Ohoinak bildu tuzte guzien artean
Eta presondegirat hamabortz ereman.

Hamabortz ereman, chiruri-chirurikan
Hamabortz ereman, chiruri-chiruran.

11

Katedrale ondoan chafauta eman zen
Eta bi othoitzekin urkatu zituzten,
Urkatu zituzten, chiruri-chiruriken
Urkatu zituzten, chiruri-chiruren.

12

Lurbinttoan toki bat bada ohoin-zilo
Bainan bertze munduan ohoinak daude lo.
Ohoinak daude lo, chiruri-chiruriko
Ohoinak daude lo, chiruri-chiruro.